

azoka

Behemendiren merkatu ibiltaria Andoainen izango da gaur

Aurten lehen aldiz, nekazaritza produktuen merkatua Andoaingo udalerrian izango da, Kale Nagusian hain zuzen ere. Goiz partetik eguerdiko 14:00ak arte izango dira zabalik postuak. Merkatuan 25 mahai jarriko dira, eta produktu ugari eskainiko. Besteak beste, barazki, mahai sagar eta udare, ardi, behi eta ahuntz gaz-

ta, ezti, marmelada, baserriko ogia, patetea, lore eta landareak, eskulanak... izango dira salgai Andoaingo Kale Nagusian. Antolatzaileek onartu dutenez, «oraindik ez da barazkien sasoirik onena, baina badira porru, azelga, aza, tipulina, azalorea eta baba». Horretaz gain, Tolosako babarrunak eta Ibarako piperrak leku berezia izango dute merkatuan. Gozogintza arloan, bizkotxo, madalena, etabar topatzerik ere izango dira.



EGUNKARIA

LAKUNTZA. xabier Silveira, Oscar estanga, Mikel Altzuart, Nerea Bruño. Gaur, Pertza elkartean, gaueko 21:30ean.
ORDIZIA. Iker Zubeldia, Egoitz Zelaia, Jon Martin, Iñaki Apalategi, Eneritz Zabaleta, Etxahun Lekue. Gaur, 20:30ean, Argiberri elkartean.
UITZI. Iñigo Olaetxea, Josema Leitza, Iñigo Ibarra, Joseba Andoni Beltza. Gaur, 21:30ean, Orixenea elkartean.

dantza

BILBO. Bihotza alai taldea, Mikeldi dantza taldea, Gure herri dantza taldea, Bizkaiko gaiteroak, ondalan erraldoiak eta goikale kultur elkartearen emanaldia. Gaur, 19:30ean, Deustuko San Pedro plazan.
'Zurdo', 'El precio del fracaso'. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:30ean, La fundición aretoan, El ojo de la faraona taldearen eskutik.

hitzaldiak

AIA. 'Nekazaritza biologikoa'. Bihar, 12:00etan, Kultur Etxean, Pello Rubio Biolurreko kidearen eskutik.
ARETXABALETA. 'Hizkuntz eskubideak borrokatuz, ofizialtasuna eraiki'. Gaur arratsaldeko 18:30ean, Loramendiko egoitzan.
BARAÑAIN. Irungo alardea. Gaur, arratsaldeko 16:00etan, Udaletxean, Magi Beullent eta Maribel Garciaeren eskutik.
DONOSTIA. 'Musikaren Industriaren Mekanismoak' mahai inguruak. Gaur, goizeko 10:00etan, 12:00etan eta arratsaldeko 16:00etan.
IRUN. 'Emakume gazteak Euskal Herrian' eta 'Egoera zaharrak, erronka berriak'. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Hazia elkartean, Ainhua Etxaide eta Naiara Berasategiren eskutik.

ikus-entzunezkoak

ARBIZU. 'Haitz eskalada eta izotz eskalada'. Gaur, 21:00etan, Udaletxean, Eneko Pouren eskutik.
BERGARA. 'Senderos de gloria' filma. Bihar, arratsaldeko

antzerkia

'Mundopolski: Extragedia y rebelión'. Gaur, Basauriko Social antzokian (20:30ean).

Etsipena eta ekimenaren arteko talka

Erredakzioa | DONOSTIA

Poloniako komun batean, pailazo troskista batek eta neskato iraultzaile batek egiten dute topo. Bien patuak umorez eta etsipenez beteriko hitz-jarioan gurutzatuko dira, eta bien arteko talkaren lekuko izango da Corifera. Mundo, Mika eta Corifera dira Antzerkiola Imaginarioaren *Mundopolski: Extragedia y rebelión* laneko pertsonaiak.

Gaur Basauriko Social antzokian eskainiko du emanaldia 20:30ean euskal taldeak, joan den hilaren hasieran Barakaldon estreinatu ondoren.

Antzezlanaren testua Na Gomes, Mundoren rola betetzen duen aktorearen burutazio baten ondorengotik sortu zen. Na Gomesek Machadoren esaldi bat oinarri hartuta —«Nire haurtzarora Poloniako komun bateko oroitzapenak dira»— monologo bat idazteko eskatu zien Antzerkiola Imaginarioko Jon Gerediaga eta Unai Garateri. Alex Gerediaga *Mundopolski* ikuski-



JOXE LACALLE

Antzerkiola Imaginarioko aktoreak *Mundopolski* laneko entsegu batean.

zunezko zuzendariaren hitzetan, «emaitza oso berezia da, ezagutza garri propioak dituen».

Beste hainbat ikuskizunetan Antzerkiola Imaginarioak egin

duen antzera, hemen ere oso errealitate ezberdinetan mugitzen diren pertsonaiak aurkeztu ditu.

Mundo poloniarra da, Mika

euskalduna. Lehena azkenetan dagoen pertsonaia da, eta bigarrenak energia ordezkatzen du. Corifea berriz, beste dimentsioa batean azalduko da.

18:00etan, gaztetxean.

BILBO. 'Fraude' (Orson Welles, 1973). Gaur, arratsaldeko 18:00etan Arte Eder museoan.

'Ocho y medio' (Federico Felini, 1963). Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Arte Eder museoan.

GASTEIZ. 'Gaztetxearen 2001eko egoera, Iratxoeren etorrera' ikus-entzunezkoa.

Gaur, Abetxukoko Ekimen etxean, eta bihar, Txapelarri tabernan, arratsaldeko 20:30ean.

IRUÑA. 'Bodas en Galilea' (Michel Khalife). Gaur, 20:00etan, Zabaldin (Nabarrera 25.).

bestelakoak

ANDOAIN. 'Mujeres preokupando' aldizkariaren

aurkezpena. Gaur, gaztetxean arratsaldeko 19:00etan.

AZPEITIA. AEEKren txotxa. Gaur, 21:00etan, Berdura plazan, bertsolariak eta perkusioak.

ERRETERIA. II. Grafitien erakustaldia. Gaur, gaueko 23:00etan, Biteri kalean.

LEKEITIO. 'Sihula Handia mendian bide berria eta Peruko Mendikate Zuria' diaporama.

Gaur, Aritza Monasterioren eskutik, 20:00etan, Jubilatuen etxean.

ZARAUZ. Ipuin kontaketa. Martxoaren 20an, Virginia Imaz eta Xefo Rodriguezen eskutik, Haur liburutegian.

erakusketak

AZPEITIA. Itsasi Kultur

Taldearen argazki erakusketa. Martxoaren 24ra arte, Olazko Amaren Plazatxoan.

BILBO. 'Gaur, hemen, orain'. Apirilaren 7a arte, Bilboko Arte Ederretako Museoan.

DONOSTIA. Miniaturak: Errioxako jantzi tradizionalak. Martxoaren 17a arte, Kutxaren Boulevard 1 aretoan.

DURANGO. Baroja Colleten eskultura, collageak eta grabatuak. Martxoaren 30eraino egongo da ikusgai Beitu arte galerian. Erakusketa, 10:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:30etara egongo da zabalik.

GETXO. 'Emakumea lanean' izeneko argazki erakusketa. Hilaren 23ra arte, Algortako aretoan.

LAZKAO. '500 milioi urte

Euskal Herrian'. Martxoaren 27a arte, Kultur Etxean.

ikastaroak

BILBO. Tango ikastaroak. Tangoaren oinarriko pausuk ikasteko, Garua elkartearen eskutik.

Uda garaian, Café Boulevard-eko lehenengo solairuan, ostiralero eta hileroko lehen larunbatetan, 23:00etatik aurrera.

IRUÑA. Udaletxeko Eraikuntza Eskola-Lantegia. 16-24 urteko gazteendako, etxegile, arotz eta hargin lanbideak ikasteko matrikula zabalik. Ikastaroak bi urtez iraunen du, goizeko orduetegian.

Soldata eta lan kontratuarekin. Informazio gehiagorako: 948-132719.

Eguzki Irrati librea parte

hartzeko deialdia. Irratian kolaboratu edo parte hartu nahi duten guztiendako. Astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 21:00etara Nabarrera kaleko 6. atariko 1. etxebizitzan galdegina.

IPESeko hainbat ikastaro: 'La economía y sus mitos', 'La cuestión nacional en España', 'Literatura eta dokumentazioa, psikologia eta hezkuntza, umeen psikomotrizitatea... eta abar. IPES elkartean (San Migel karrika, 8). 948-225991.

USURBIL. 'Barazgintza ekologikoa'. Martxoaren 20, 21, 25 eta 26an emango dituzte eskolak, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Izena eman nahi duenak telefono zenbaki honetara deitu dezala: 943-366447.